

Otsailaren 17an
URTEAN ZEHARREKO 6. IGANDEA

Agurra

Gure babes eta harkaitz dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristo piztuak beste igande batez bere mahaian biltzen gaituela jakiteak poztu egin behar gaitu: bere eskaintza ederra ospatzeak laguntzen digu eguneroko gure ahalegina eta eskaintza apala egiten. Horixe da zoriontasuna: bihotza Jainkoaren esku jartzea.

Damu-otoitza

Aitor dezagun Jainkoaren aurrean, barkamen beharra dugula.

—Jesus Jauna, gure bidelagun egin zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gurutzean bizia eman diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, piztean itxaropenez bete gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara

Otoitza

**Jainko gure Jauna,
bihotz garbi eta zintzoetan duzu zeure atsegina;
egizu, zure grazian bizi gaitezela,
Zu gure bihotzean bizi zaitezen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkozko gizakiaren fruituak bikainak dira: justizia, errukia, besteen askatasuna bilatzea. Egiatzko iturritik edan behar benetako zoriona iristeko: Jainkoa da iturria, itxurazko zailtasunak gaindituz zorioneko egiten gaituena.

Lehenengo irakurgaia (Jr 17, 5-8)

Jeremias profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Madarikatua, bere itxaropen gizakia duena, bere indarra haragian bilatzen eta bihotza Jaunarengandik urrutiratzen duena. Astalarra basamortuan bezala izango da; hona etortzen bazaio ere, ez du ikusiko; basamortu kiskalian itsatsia dago, inor bizi ez den lur gazian. Bedeinkatua, Jaunarengan uste duen gizakia, bere itxaropen Jauna duena. Ur ertzetan landatutako zuhaitza bezala da, ur biziaren ondoan botako du bere zuztarra; ez du beroaren beldurrik, haren hostoak beti hezerik; lehor urtean ez dio axolarik; ez dio utziko fruitu emateari».

Erantzun-salmoa (Sal 1, 1-2. 3. 4 eta 6)



Bai mai - te du - da - la, Jau - na, zu - re le - ge - a.



Bai dohatsu, gaiztoen asmoari jarraitzen ez zaiona, ' hobendunen bidean ez dabilena, lotsagabeen batzarrean esertzen ez dena. Ostera, Jaunaren legean atsegin duena, gau eta egun Haren legea hausnartzen duena. R/.

Ur ertzean aldaturiko zuhaitza bezala izango da,
bere garaian ematen du fruitua;
eta historik ihartzen ez zaio:
zeregin guztietan ongi doakio. R/.

Ez horrela gaiztoak, ez horrela:
haizeak daraman lastoa bezala izango dira.
Zintzoen bidezain Jauna baitago,
gaiztoen bidea, berriz, hondamendirako. R/.

Bigarren irakurgaia (1 Ko 15, 12. 16-20)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Kristo hilen artetik piztu zela hots egiten denez gero,
nolaz esaten dute zuetako batzuek, hilak ez direla bizten?

Izan ere, hilak bizten ez badira, Kristo ere ez da biztu. Eta Kristo biztu ez bada, hutsa da zuen sinestea; oraindik zuen bekatuetan zaudete. Eta Kristorengan lo daudenak ere, galduak dira. Bizitza honetarako bakarrik baldin badugu Kristorengan itxaropen, gu gara gizaki guztietan errukarrienak.

Baina ez! Piztu da Kristo hilen artetik, lo daudenetan lehen fruitu bezala.

Aleluia (Lk 6, 23ab)



Poztu zaitzete eta alaitu:
handia izango da eta zuen saria zeruetan. R/.

Ebanjelioa (*Lk 6, 17- 20-26*)**Homiliarako argibideak***Zorionekoak zoritxarreko diruditenak*

Mateo ebanjelariak zortzi zoriontasun jasotzen dituen bezala, Lukasek lau zoriontasun dakartza, beste lau lantu edota aiene esaldiekin.

Ondo begiratu behar dugu zeini deitzen dion Jesusek “zorioneko” eta norekin hartzen duen pena, zoritxarreko direlako... ez dakigun gerta behar ez den tokian zoriona bilatzerik, Jainkoak zeri garrantzia ematen dion ahaztuz.

Lau jende klaseri deitzen die Jesusek zorioneko: behartsuei, gose direnei, negarrez daudenei eta fedea dela eta pertsegituak direnei. Eta beste lau pertsona motari begiratzen die atsekabez: aberatsei, aseak direnei, barrez daudenei eta zurikerietan atsegin dutenei.

Kontrajartzen diren errealitateak dira. Lukasek berak Magnificat abestian Mariaren ahotan jartzen zituen hitzen modukoak: beharatu ditu handikiak eta gora jasotzen txikiak, asetzen ditu gose direnak eta esku hutsik bidaltzen aberatsak. Molde berekoa da Jesusek Nazareteko Sinagogan egindako lehen hitzaldia ere: Jainkoak behartsuengana, gatibu direnengana, itsu eta zapalduengana bidali du.

Baina, nola liteke gure begietan zoritxarreko direnei zorioneko deitzea? Jesusen ikasbidea harrigarria da, mundu honetako irizpideen kontrakoa. Gure ustezko zoriona bestelakoa da oso. Jainkoagan uste on duena da, ordea, zorionekoa; ez, gauzetan ustea duena. Aspaldi esan zuen hori Jeremias profetak ere. Zein zerrendatan ikusten dugu geure burua? Non bilatzen dugu zoriona? Mariak, Josek, Ekialdeko Magoek, Anak eta Simeonek... Mesias

ezagutzen estreinako izan ziren artzainek... apaltasuna zuten bide eta zoriona iritsi zuten. Aldiz, handiustekoek, salbatzailearen beharrik sumatzen ez dutenek ezin Kristo aurkitu.

Horrek ez du esan nahi Jesusek pobretasuna eta jendearen negarra nahi duenik; horrek ez du esan nahi Jesusek jende zapaldua egotea nahi duenik. Ez du mundu hori nahi Jesusek. Baina garbi utzi nahi digu, bereaz hustu dena bakarrik dela gai Jainkoa aurkitzeko. Guztia duenak, dena dakiela uste duenak nekez aurki dezake Jainkoa... eta beraz egiazko zoriona. Txikiek eta apalek, zapalduak eta nekatuek Jainkoa bilatzen dutelako dira zorioneko, itxaropena jarri behar den tokian jarria dutelako.

Igandero ospatzen dugun Eukaristian egiazko jakinduria eskaintzen zaigu, eta biderako indarra ematen: “ni jaten nauenak badu betiko bizia eta piztuko dut nik azken egunean”. Betiko biziaren hazia da jaten dugun Ogia, betiko bizitzan dagoen Kristo, betiko bizitza den Kristo, jaten dugulako.

Jainkoaren herriaren otoitza

Jo dezagun, senideok, errukiaren Jainkoarengana eta eska diezaiogun bere gogora bizitzeko indarra:

- Mundu guztiko bakearen alde, Elizen onaren alde eta gizakien batasunaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beren ardurapean bizi oparoa eta bakezkoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Naturaren zaintzaren alde, lurraren emankortasunaren alde, munduaren aurrerabidearen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Piztueraren itxaropenean hil diren gure senide eta adiskideen alde, Jainkoak bakezko atsedena eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, handizkiak beren aulkitik botatzen dituzu eta ondasunez betetzen dituzu apalak; entzun gure otoitzak, aditu herri guztietan zugana altxatzen den behartsu eta zapalduen deadarra, hautsi elkarren etsai egiten gaituen indarkeriaren eta norberekeriaren uztarria eta emaguzu senide bezala elkar onartuz maitasunean bildutako gizadi berriaren ezaugarri izatea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Zeruko ogia eman diguzu janari, Jauna;
egizu, egiazko biziaren iturriak bila ditzagula beti.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**